

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gregori Goitia Izurieta

*Lekeitio,
Bizkaia
(1919-2020)*

Aurkibidea



Biografia



1919. urtean jaio zen eta Bergara kalean bizi eta hazi zen zazpi neba-arrebako familia batean, bera bigarrena izan zen. Gurasoak ere lekeitiarrak zituen. Umetan neba-arrebak jagon behar zituen, ez zen sekula eskolara joan, eta bikarian ikasi zuen ikasitako apurra, betiere euskaraz. Ama 13 urte zituela hil zitzaion, eta amamarekin hazi ziren. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak eta aita kartzelan izan zuenekoa. Kabanen eta dei egiteko ibili zen gazte-gaztetatik erretiratu artean.

Zintak

LEK-043

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-04-06
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

LEK-044

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-04-06
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Bikarioaren etxeko eskola

- **Erref:** LEK-043/003
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:04:30. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean herria ebakatu zutenean, aitzak alde egin zuen eta etxeko umeak amumagaz geratu ziren. Eliza atzeko bikarioaren etxeko eskolara joaten zen domekero.</p>

Transkripzioa

- Gero ixan zan ba, desalojua etor zanian, desalojua etor zanian aitta eta jun zirian horra desalojaten jun ta nik e aittari "neuk be jun, neuk be zeuaz nahi dotela jua" ta "ez, ze laster etorriko gara gu, zu geldirik amumaz, zu geldirik". Gelditu giñian amumaz ta gero hor... elixi, elixi bakixu nun dagon /don/ ezta? Hantxe atzeko partin eguan bikarixuen hori etxia. Ta domeketan emoten eben hantxe eskoli, domeketan. Nik itxiko neban eskoli ba? Domekan domekan juten nintzan eskola. Ta hantxe ikasi neban pixkat, asko ez baiña, eskribiduten ta leiduten be zeozer, handixak, letra handixak, baiña erdera bapez, erdera bapez, ez neban urten injenieria ta. Nere aitzak bai, nere aitzak jakin eben erderaz, kolejixun eon zirin ta, baiña nik ezer bez, hamen neguan ni neure kontura, bakarrik.

2. Hondarrezko zakuz egindako babeslekuak

- **Erref:** LEK-043/006
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:08:38. **Bukatu:** 00:10:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerran beharretik lurpera joaten ziren ezkutatzera. Hondarrez beteta zakuak jartzen zituzten babesteko. Gernika erre zutela jakin zutenean, Lekeitiora etorriko zirela pentsatu zuten.</p>

3. Kamioikada gazte frontera

- **Erref:** LEK-043/007
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:10:40. **Bukatu:** 00:11:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Eskolapean zeudela mutil gaztez betetako kamioia ikusi zuten. Mutil horiek frontera zeramatzan kamioiak. Oso egoera gogorra zela dio Gregorik. Talan ere bazegoen babesleku bat.</p>

Transkripzioa

- Gero, jun giñian urten, eskolapian zihar jun giñian, eskolapian zihar ta... kamion handixa, kamion handixa, mutil gaztiakin , ama guztik negarrez, ama guztik negarrez, haixe zan etxuri, ene... Mutillak koittaduk hogei urtekuk mendira! Mendira! Umik danak, haxe zan e... haixe etxuri, esaten gendun. Baiña gero, zelan zan bestie? Ha talan be eon zan! Beste halako bat , beste suterraneo bat, talako han , baiña han... han barrun euan, zelaku da hori? E suterraneua, kamiñun barrun eguan han, han barrun kamiñun barrun eguan suterraneua, ta jentia haraxe. Zemat holako, ene!

4. Ogi gosea

- **Erref:** LEK-043/008
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:11:31. **Bukatu:** 00:14:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra garaian ogi eskasia zegoen. Aulestiraino joaten zen ogi bila. Mendexatik zetorren esnedunak arto-irina ekartzen zien taloak egin ahal izateko. Horrekin lotutako anekdota bat kontatzen du, amamaren ezkutuan oreka egin zuenekoak.</p>

5. Etxetik irten arren laster ziren bueltan

- **Erref:** LEK-043/009
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:14:09. **Bukatu:** 00:15:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>Portal de Atea ondoan ura zuen lur azpiko pasabide bat zegoen eta gerran hara joan ziren amamagaz, baina laster bueltatu ziren etxera hura ez baitzen leku egokia.</p>

Transkripzioa

-Ta gero juten giñian haraxe, bakixu nun dagon /don/ hori, lehen nun... lehen nun.... ontxe be... karnazerixa Portal de Atean? Hantxe, hantxe gora junda eguan suterraneo bat, baiña suterraneua zan gero erdi-erdixan eukan hori, zelaku hori... Ura, pozua, ta jentia hantxen ta jun giñenin hirurok amuma ta aizta bixok jun giñenin "kontuz e, hor jausi barik, ze hor jausten danak ez dauko entradarik eta gehixorik ". Itto, ta gure amumak esan eban ze "potxuak guazen etxera, etxera guazen, geure halakora, ze hobeto eongo gara etxin barrun". Ta etxin eon giñian, baiña esan neban "hau gerriau".

6. Aita Gasteizen eta neba Ferrolen preso

- **Erref:** LEK-043/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:15:07. **Bukatu:** 00:16:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean aitak alde egin zuen. Herrira bueltatu zirenean, atxilotu eta Gasteizko kartzelara eroan zuten aita. Gregoriren nebaren bila ere etorri ziren, baina aitak bere semea Ferroleko kartzelan zegoela esan zien. Datu hori egiaztatu ostean, aita aske utzi zuten, semearen truke aske uzten zutela esanez. Ia arropa barik bueltatu ziren; izan ere, zorriek dena jan zieten.</p>

7. Aita eta osaba Markinako kartzelan

- **Erref:** LEK-043/011
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Behin Guarda zibilak aita eta osabaren bila joan ziren motorrera (itsasontzira). Kuartelera joan eta gero Markinako kartzelara eroan zituzten eta bertan kartzelaratu. Bertara egindako bisita bat dakar gogora Gregorik.</p>

8. Arraina buru gainean kabanetara

- **Erref:** LEK-043/012
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Miseria asko ezagutzea egokitu zitzaien gaztetan: eskolarik ez, umeak jagon beharra, gutxiarekin bizitzen ikasi behar... Arrainak buruan hartuta eramaten zituzten kabanetara. Trapu batekin azaltzen du zelan eroaten zuten. Otzarako bi edo hiru txori handi irabazten zituzten. Otzara bakoitzak 24 bat kilo zituen.</p>

Transkripzioa

- Guk... geure denporia miserixan, ze halakorik bez, eskolarik bez, eskolarik bez, umiek jagon, erderarik bez ta ezebez, eskribiduten be jakin bez. Esan neban: hauxe da daukaun biximodua, esaten neban. Baiña tira, bixi ixan gara ta bixi ixan garin lez e, zenbat holako ein doun. Ta arraiñak, gixonak ekarri itsasotik ta burun hartun ta kabanetara eruan.

- Burun?

- Burun hartunda, burun hartunda.

- Ta zelan eroaten zenduen?

- Ba eskuk, ordun eskuk [...] eukauzan ta, eskuokin e, gixonak altzaten euskuen burun eta kabanetara eruan, kabanetara eruan, eitten gendun.
- Ta hemen zer jartzen zenduen?
- Bai hori, e, trapu bat imiñi, trapu bat imiñi ta burun erdixan ipiñi. Haunantxeik imiñi ta burun erdixan, haunantxeik. Haunantxeik imiñi ta gixonak imiñi otzaria, gixonak imiñi otzaria ta norberak eruan. Ta hiru txori handi, txori handi bi ta otzarako. Nun eguan ba, nun eguan ba? Ez eguan dirurik eta. Zenbat holako, ene... ein douzen.
- Zenbat killo otzaran?
- Otzaran asko, hogetalau killo bai, asko, otzara handiak zirin ta.

9. Hondoratutako gomei esker etxea erosi

- **Erref:** LEK-043/015
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:23:33. **Bukatu:** 00:25:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

<p>II. Mundu Gerran, itsasoan hainbat ontzi hondoratu zituzten. Bere senarra horietako batera joan zen, hondoratutako bat goma kautxuz beteta egon baitzen. Lau bapora joan ziren eta laurak bueltatu ziren gomaz beteta. 12.000 pezetako partila (soldada) lortu eta horri esker erosi zuten etxea.</p>

10. Erreketeak sartu zirenean, kabanen ezkutatuta

- **Erref:** LEK-043/019
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:29:37. **Bukatu:** 00:31:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

<p>Lekeitiara erreketeak etorri zirenean, bera Okamikaneko kabanen (Kontserba-lantegian) egon zen lanean. Kabanako kanpaiak jo zituzten erreketeak sartu zirenean. Kabanen bertan ere ezkutatu egiten ziren, poteak Maria bainuan jartzeko lekuan.</p>

11. Enperatziz zita hostala erre zutenekoa

- **Erref:** LEK-043/021
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:31:35. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean Enperatriz Zita hostala erre zutenekoa gogoratzen du.

Hondarreraino doazen eskaileretatik irten ziren bertan egon zirenak. Gaur egungoa baino dotoreagoa zen. Zelakoa zen deskribatzen du. Berak ez zituen bertakoak ezagutu.</p>

12. Domeketako bikariotzako eskolak

- **Erref:** LEK-043/023
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:35:34. **Bukatu:** 00:38:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Umetan ez zuen eskolara joateko aukerarik, neba-arreba gazteagoak baitzituen zaintzeko. Bikariotzara joaten zen zer edo zer ikastera bertako irakasleekin. Eskolako kontzeptuak ikastez gain, erlijio kontuak ere irakasten zizkieten. Berak ez zuen "pando" egiteko (sasieskola) gogorik izaten. Dena egiten zuten euskaraz. Bere ahizpak kolejiara joan ziren eta ikasi zuten erdaraz.</p>

13. Herria italiarrez beteta

- **Erref:** LEK-043/028
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:45:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Gerra Zibilean, italiarrak etorri zirenean, ikara asko izan zuten. Italiarrei ogi zuria ematen zioten eta ogi zuriaren truke musua eskatzen zuten; hala ere, ez zieten musurik ematen.</p>

14. Gose garaia

- **Erref:** LEK-043/029
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:45:55. **Bukatu:** 00:46:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra garaian, gura beste arroz jan zuten. Eliza atzean jaten zuten, bikarioaren etxean.</p>

15. Ilea moztutako emakumeak herritik bueltaka

- **Erref:** LEK-043/035
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:51:37. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Gerra garaian, ilea moztu zieten hiru emakumek egunero egiten zuten herritik buelta danborra joaz.</p>

16. Karabineroekin Guardia Zibilekin baino hobeto

- **Erref:** LEK-043/040
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:55:30. **Bukatu:** 00:56:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak

Laburpena:

<p>Karabineroak Lekeition. Zubi ondoan ere bazeuden eta han ondoan zegoen kobazuloan ere ezkutatzen ziren gerran. Karabineroekin Guardia Zibilekin baino hartu-eman hobea zuten.</p>

17. Errazionamendua Arranegian eta jantokia bikarriotzan

- **Erref:** LEK-043/042
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:58:05. **Bukatu:** 00:59:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Errazionamendua Arranegian hartzen zuten. Aita-eta alde eginda egon zirenean, bikarioaren etxeko jantokira joaten ziren</p>

18. Egunkaria kalerik kale saltzen zuten

- **Erref:** LEK-043/048
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:03:50. **Bukatu:** 01:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Egunkaria kalerik kale saltzen zuten kantatzen. Lolita aritzen zen saltzen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-04-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com